

## Martxan da laguntza-neurriei buruzko informazio eta aholkularitza zerbitzua

**Atzeratu egingo da zabor zerga ordaintzeko epea eta itxita dauden bitartean, ez zaie zabor tasarik aplikatuko eskualdeko eragile ekonomikoiei**



COVID-19 birusak sortu duen egoeraren aurrean, Udal Elkarteak neurri berriak jarri ditu martxan. Zabor zergari dagokionez, atzeratu egingo da ordaintzeko epea eta **itxita** dauden bitartean, ez zaie zabor tasarik aplikatuko eskualdeko eragile sozioekonomikoiei.

### Aldaketak zabor zergan

Herritarren zama ekonomikoa arintzeko helburuarekin, atzeratuko egingo da zabor zerga ordaintzeko epea eskualdeko zergadun guztientzat. Udal Elkarteak erabaki du atzeratzea etxeko hondakinen bilketa zerbitzuaren gaineko tasaren diru-bilketa prozesua.

Era berean, Udal Elkarteak ondorengo erabaki du: merkataritzako saltoki txikiak, ostalaritza eta turismo-sektoreko, nahiz bestelako **enpresak itxeko aginduren ondorioz**, inolako diru-sarrerarik ezin sortuta diren eskualdeko eragileei zabor tasarik ez aplikatzea **jarduna etenda** duten bitartean. Hau da, **itxieraren ondorioz, jardun-etenaren epealdian, ez da zabor tasarik aplikatuko eskualdeko eragile ekonomikoengan.**

Udal Elkarteak lanean ari da, ahalik eta lasterren, kaltetu guztiei horretarako beharrezkoa den dokumentazioa helarazteko.

### Garapen Agentziatik aholkularitza eta babesa

Aldi berean, Garapen Agentziak krisi-egoerari aurre egiteko laguntza-neurriei buruzko informazio eta aholkularitza zerbitzu iraunkorra du martxan. Horretarako, 943 89 08 08 telefonoa edo [harrera@urolakosta.eus](mailto:harrera@urolakosta.eus) e-posta eskuragarri egongo dira.

Garapen Agentziako zerbitzu guztiak buru-belarri dabilta sortutako egoerari aurre egin eta eskualdeko enpresa, ekintzaile eta herritarrei aholkularitza eta babesa eskaintzeko. Hala, martxan jarri da laguntza-neurriei buruzko informazio eta aholkularitza zerbitzu iraunkorra.

Martxan jarri diren neurri eta laguntzei buruzko oinarrizko informazioa eskaintzen ari gara, bereziki krisiak zuzen-zuzenean eragin dien eskualdeko merkatariei eta ostalariei, zerbitzuetako autonomo eta enpresei, eta baita turismo sektoreko eta kultura eta sormen sektoreko



profesionalei bideratuta.

Autonomoak eta zerbitzuen sektoreko profesionalak jo ditu gogorren krisi-egoerak. Erakundeek, Espainiako Gobernuaz gain, Eusko Jaurlaritzak eta baita Gipuzkoako Foru Aldundiak ere, dagoeneko onartu dituzte horiengandako hainbat prestazio eta laguntza zehatz. Une honetan, ezinbestekoa da zuhurtziaz eta modu koordinatuan lantzea informazio hori guztia. Horretara dator Garapen Agentziaz eskaintzen den informazio eta aholkularitza zerbitzu berezia.

Edozein zalantza argitzeko, hauek dira Udal Elkartearekin harremanetan jartzeko bideak:

- 943 89 08 08
- [harrera@urolakosta.eus](mailto:harrera@urolakosta.eus)

### **Ekonomia suspertzeko neurri bereziak**

Udal Elkarteak bere baliabide guztiak ari da bideratzen krisi-egoerari aurre egiteko. Giza talde osoa lanean ari da, etengabeko koordinazioan, eskualdeko udalekin, eta lurraldeko beste garapen agentzia eta erakundeekin. Ezinbestekoa da ahalegin berezia egitea Garapen Agentziako zerbitzuetatik, bailarako ekimen sozioekonomikoa babestu eta suspertzeko neurri bereziak hartzeko; bereziki, merkataritza saltoki txikiak, ostalaritzako establezimenduak, kultura eta sormen nahiz turismo sektoreko enpresa eta eragile guztiak laguntzeko.



## En marcha el servicio de información y asesoramiento sobre las medidas de apoyo

Se retrasará el plazo de pago del impuesto de residuos, y mientras permanezcan cerrados, a los agentes económicos de la comarca no se les aplicará la tasa



Ante la situación creada por el virus COVID-19, la Mancomunidad Urola Kosta ha puesto en marcha nuevas medidas. En cuanto al impuesto de residuos, se ha decidido retrasar el plazo de pago para todos los contribuyentes, y al mismo tiempo, **mientras permanezcan cerrados**, a los agentes socioeconómicos de la comarca no se les aplicará la tasa.

### Cambios en el impuesto de residuos

Con el objetivo de aliviar la carga económica de la ciudadanía, se retrasará el plazo de pago del impuesto de residuos para todos los contribuyentes de la comarca. La Mancomunidad ha decidido posponer el proceso de recaudación del impuesto sobre el servicio de recogida de residuos domésticos.

Asimismo, ante la orden de cierre del pequeño comercio, la hostelería, las empresas del sector turístico y por tanto, ante la imposibilidad de que puedan generar ningún tipo de ingreso, la Mancomunidad ha decidido que, mientras los agentes permanezcan sin actividad, no se les aplicará el cobro del impuesto de los residuos. Es decir, **como consecuencia del cierre, durante el periodo de suspensión de la actividad, a los agentes económicos de la comarca no se les aplicará la tasa del impuesto de residuos.**

Se está trabajando para facilitar a todos los afectados, a la mayor brevedad posible, toda la documentación necesaria para ello.

### Asesoramiento y apoyo desde la Agencia de Desarrollo

Al mismo tiempo, la Agencia de Desarrollo dispone de un servicio permanente de información y asesoramiento sobre las medidas de apoyo aprobadas ante la crisis. Para ello, están disponibles el número de teléfono 943 89 08 08 o el correo electrónico [harrera@urolakosta.eus](mailto:harrera@urolakosta.eus)

Todos los servicios de la Agencia de Desarrollo están volcados en hacer frente a la situación creada, asesorando y ayudando a las empresas, a las personas emprendedoras y a toda la



ciudadanía, en general. Así, se ha puesto en marcha un servicio permanente de información y asesoramiento sobre todas las medidas de apoyo existentes.

Se está ofreciendo toda la información sobre las medidas y ayudas aprobadas, especialmente sobre las ayudas dirigidas al pequeño comercio, a la hostelería, a los autónomos y a las empresas, y también a los profesionales del sector turístico y el de las industrias culturales y creativas, afectados directamente por la crisis.

Los autónomos y los profesionales del sector servicios han sido los más afectados por la crisis. Tanto el Gobierno de España, como el Gobierno Vasco la Diputación Foral de Gipuzkoa han aprobado ya una serie de prestaciones y ayudas concretas. En este momento, es imprescindible trabajar de forma prudente y coordinada toda esa información. Ese es el objetivo principal del servicio especial de información y asesoramiento que se ofrece desde la Agencia de Desarrollo.

Para cualquier duda o aclaración, pueden contactar con la Mancomunidad a través de los siguientes canales:

- 943 89 08 08
- [harrera@urolakosta.eus](mailto:harrera@urolakosta.eus)

### **Medidas especiales de reactivación económica**

La Mancomunidad está destinando todos sus recursos para hacer frente a la crisis. Todo el equipo humano está trabajando en permanente coordinación con los ayuntamientos de la comarca, y con las demás Agencias de Desarrollo e instituciones del territorio. Es preciso hacer un esfuerzo especial desde los servicios de la Agencia de Desarrollo en la adopción de medidas específicas de apoyo y revitalización de la iniciativa socioeconómica de la comarca; en particular, destinadas al pequeño comercio, a los establecimientos hosteleros, a las empresas, a los agentes del sector turístico y a los profesionales de las industrias culturales y creativas.